# Euskal AEko BPG urte arteko %3,1 gehitu da 2015eko laugarren hiruhilekoan

### *2015 osoan, %2,8*

Euskal AEko Barne Produktu Gordinak (BPG) %3,1eko gehikuntza izan du 2015eko laugarren hiruhilekoan urte artean, urtaro- eta egutegi-eraginik gabe, Eustaten aurrerapen datuen arabera. Aurreko hiruhilekoaren aldean, tasa ehuneko hamarren bat handiagoa da.

2015eko hirugarren hiruhilekoaren aldean %0,8ko aldakuntza-tasa, aurreko hiruhilekoan bezalaxe.



Eskaintzaren ikuspegitik, 2015eko laugarren hiruhileko urte arteko hazkundea industriari, zerbitzuei eta lehen sektoreari zor zaie. Eraikuntza, aurreko hiruhilekoan bezalaxe.

2015eko laugarren hiruhilekoan enplegua, dedikazio osoko baliokidetzako lanpostuetan, %2,0 gehitu da aurreko urteko hiruhileko beraren aldean; hazkunde-erritmoa azkartu egin da. Hiruhileko artean %0,7ko hazkundea.

2015 osoan, BPGren lehen zenbatespena %2,8ko hazkundea da; 2014an, %1,4, erdia. Enplegua %1,7 hazi da.

***Informazio gehiago:***
*Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística*
*Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz*
*Prentsa zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.:* 945 01 75 62
*Euskal AEKo hiruhileroko kontuak. Aurrerapena. Prentsa-ohar gehiago*
*Euskal AEKo hiruhileroko kontuak. Aurrerapena. Datu-bankua*